



# DIRU-ITURRIAK

Gure produktuek aurrera egin dezaten, irabazi-iturriak behar ditugu. Hori dela eta, merkatuan kokatzeko gure produktuak prezio dinamikoa izango dute. Hau da, merkatuaren egoeraren arabera prezioa aldatzen joango da, irabaziak galerak baino handiagoak izateko ahal den denbora luzenean.

Prezioa gure kasuan, denbora errealeko merkatuak finkatuko du, hau da, eskaintza eta eskariaren legeen arabera aldatuko da. Hau da, eskariak gora egiten badu, gure prezioek ere gora egingo dute. Baina, aldiz, eskaria jaisten bada, gure produktuen prezioa ere jaitsi egingo da.

Gainera, diru sarrera gehiago izateko, beste enpresetako produktuen edo zerbitzuen publizitatea egingo dugu gure salmenta web-orrialdean. Horrez gain, gure aktiboen salmenta ere izango dugu (routerra eta router eramangarri bat integratuta duen mugikor zorroa).